


Eskolatik logelara eta logelatik sarera, beti lagunekin

Gizarte sareek onura dakarte kaltea baino gehiago, eta iraultza eragin dute gazteen arteko komunikazio bideetan



Guraso askok diote ez zaizkiela arrotzak gertatzen beren seme-alabek erabiltzen dituzten hitz asko: tuenti, myspace, live spaces eta facebook izan daitezke horietako batzuk. Hitz horiek zer esan nahi duten galdetzen zaienean, ordea, ez dute jakiten zer erantzun, eta "Interneteko zerbait" direla esaten dute. Termino horiek guztiek gizarte sare ezagunen berri ematen dute, eta gazteek oso modu aktiboan parte hartzen dute horietan. Jarduera horrek argi erakusten du gazteen ohiturak aldatu egin direla azken urteetan: orain ez dira aritzen borrokan, telebistan zer ikusiko; orain, ordenagailuko pantailaren bitartez egiten dituzte beren elkarrizketak, eta, ahal dela, beren txoko kutunean sartuta, logelan.

Telefonoarekin ere berdin jokatzen dute: orain ez dute ibiltzen telefonoa belarrira itsatsita hainbat orduz; orain, Internet erabiltzen dute beren adiskideekin harremanetan egoteko, eta Internetek eskaintzen dituen zerbitzu jakin batzuk: gizarte sareak.

Arratsalde osoa ordenagailu aurrean pasatzen dute gure seme-alaba nerabeek; zer egiten dute?

Ohikoena da eskolako patioan izan duen solasaldiari jarraipena ematea, baina beste modu batean. Gizarte sareetako harremana, izan ere, ez da aurrez aurrekoa bezalakoa; elkar ikus dezakete, baina ez elkar ukitu, eta horregatik, ez da hain lotura indartsua. Gainera, elkar ikusi

gabe komunikatzeko hainbat modu eskaintzen ditu: bideoa, ahotsa, irudia, testuak, jolasak... Harreman-formula hau ez dute erabiltzen eskolako lagunekin soilik, edo udaldiko lagunekin, edo diskotekakoekin. Munduko bazter guztietako nerabeak dabilta Interneten, eta nahi duten guztiekin sor ditzakete harreman birtualak. Nerabearentzat, bere munduaren zati da gizarte sarea, bera ulertzen dutenen biltoki, bere taldearen gunea.

Zergatik dute hainbesteko interesa?

Nerabe batek horrelako zerbitzu batean sartu eta izena ematen duenean, bere orrialdea osatzea izaten du lehen helburua, bere nortasun birtuala sortzea. Bere argazkiak eta lagunak jarriko ditu

orrialde horretan, gustatzen zaizkion bideoak erantsiko ditu, Sarean gehien maite dituen tokietara joateko loturak, abesti kutunak, eta bere bizipenak era pentsamenduak kontatuko ditu. Hortik aurrera, lagun birtualak aurkituko ditu, haiekin trukean hasiko da, eta bere komunikazio-eremua handituko du.

Normala da gurasoek jakin nahi izatea seme-alabek zer egiten duten sare horietan, zer diren egiaz sare horiek, eta zeinek hitz egiten duten. Pausoak neurtu beharra dago, seme-alabek pentsa ez dezaten muturra sartzen ari garela beren kontuetan. Haiei galdetzea da onena, eta haien elkarrizketa birtual horietako batean parte hartzeko baimena eskatzea, betiere errespetu eta zuhurtzia osoarekin. Hori egiteko prest ez badaude, ez da komeni seme-alaben ordenagailuari lotuta dagoen ordenagailuren batetik sartu, eta haien orrialdea ikustea eta han zer idazten duen aztertzea. Beste terminal batetik sartzea komeni da; gizarte sarearen orrialde nagusira joan, eta, handik, kide baten eta bestearen orrialdeetan ibili, zer diseinu eta eduki dituzten ikusi eta abar. Sare itxiak erabiltzen badituzte, sistema hori erabiltzen duten kideen gurasoekin hitz egin daiteke, eta horrela jakin liteke zer egiten duten sare horietan. Baina ez da obsesio moduan hartu behar. Gazteak diskotekara doazenean ere, ez dugu jakiten une orotan zertan ari diren, baina uzten diegu joaten.

Arriskutsuak dira toki horiek?

Gertatu izan da gazte sare hauek gaizki erabiltzea, eta

zenbait helduk helburu lizunak lortu nahi izatea, baina oso bakan. Zerbitzu hauetan, gainera, zorrotz zaintzen da pribatutasuna, eta argitaratzen diren edukiak ere bai, inork ez dezan jarri mezu kaltegarriarik jarri eta inork ez dezan urratu adingabeen eskubiderik. Ohikoa da adina kontrolatzea, eduki desegokiak berri ematen duten mezuak agerraraztea eta erantzukizun-klausulak txertatzea.

Oro har, sare hauek oso eragin ona izaten dute erabiltzaileengan. Teknologia berriekin harremanetan jartzen dituzte, modu ludikoan jarri ere, eta pentsatu behar da, urte batzuen buruan, beren lan tresna nagusiak izango direla teknologia horiek. Gizarte sareek, gainera, beste aukera bat ematen die zenbait gazteri; kanpoko harremanetan arazoak dituzten gazteek, lotsatiak direnek edo interesatzen zaion jendea aurkitzeko zailtasunak dituztenek, horiek guztiak horrela lortzen dute ingurukoekin komunikatzea, bere erara, konplexurik gabe, eta jende gehiagoren aurrean.

Sare hauek badute beste abantaila handi bat: lankidetzaren ezinbestekoa da. Gazteak etengabe ari dira gauzak trukatzeko, eta, gauza horien artean, ezagutza ere trukatzeko dute. Eskolako ikasgaiak ere pasatzen dizkiote elkarri, eta zalantzak argitu. Taldean lan egiten dute, eta taldean ikasten, eta dohain horri balio handia ematen diote enpresa munduan. Sare hauek, beraz, ez dute inor bakartzen, eta ezer izatekotan, gazteak are gehiago sozializatzeko tresna dira. ★

SARERIK GARRANTZITSUENAK

Jarraian ageri diren lau sareek helburu eta erabilerak berdintsuak dituzte; legez kanpoko esku-hartzei aurre egiteko estrategietan, ordea, badago aldea batzuen eta besteen artean.

Live Spaces: Microsoft-en gazte sarea da, gazteenentzat egina. Erabiltzaile izateko, nahikoa da izen bat ematea, posta helbide bat eta pasahitz bat. Sare irekia da, eta erabiltzaile guztien orriak ikus daitezke, erabiltzailearen batek kontraktorik adierazten ez badu, behintzat. Edukiak zorrotz kontrolatzeko klausula dauka.

MySpace: Unibertsitate arloko gazte asko biltzen ditu, eta artista asko (beren sormen lanak partekatzen dituzte). Hau ere sare irekia da, eta oso ezaguna, hemendik atera baitira egungo musika izar asko. Edukien jabetza norena den zorrotz zaintzeko klausulak ditu.

Facebook: Sare hau oso ezaguna da gazteen artean, eta ezaugarri berezi bat du: erabiltzaileek sortu dituzte hor erabiltzen diren tresnak, eta oso erraza da nor bere orrira eramatea tresna horiek. Orri itxia da, eta bertako norbaiten gonbita behar da sartzeko. Horrek babesa ematen du, eta arriskuak saihesten ditu.

Tuenti: Facebook-en antzeko orria da, baina hau gaztelaniaz dago (arrakasta handia lortu du). Pribatutasuna zorrotz kontrolatzen du, eta adinaren arabera sailkatzen ditu erabiltzaileak, inor ez dadin harremanetan jarri nahi ez duen norbaitekin.

